

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

307 - 2022ko AZAROA

MORKOTSEN
BARRUKO ALTXORRA

Lan eskaintza!!!

Mailope Aldizkariko kazetari izan nahi duzu?

Pertsona euskalduna behar dugu Mailope Aldizkari-ko kazetari taldean aritzeko.

Hilabetekariko edukiak proposatzea eta sortzea izanen da bere eginkizuna.

Kontuan hartuko dira:

- Araitz, Betelu, Lekunberri edo Larraungoa izatea edota eskualdea eta herritarrak ezagutzea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Mailope proiektuan jarduteko gogoia
- Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) edo euskara maila egiaztatzen duen titulu baliokidea izatea.
- Komunikazio arloan edo kulturgintzan esperientzia izatea edota horiekin lotutako ikasketak izatea.
- Gidabaimena eta autoa.

Interesa izanez gero, bidali zure hautagaitza pro-po-samena mailope@labrit.net helbidera eta zurekin harremanetan jarriko gara.



 **NEKAZARI, S.L.**


Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com


BIDEGOXO JATETXEA
Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak
Usabal Kiroldetgia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

aitz berri
edertasun zentroa
Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

- Ile-apaindegia
- Estetika
- Presoterapia
- Podologia
- Laser-depilazioa eta depilazio elektrikoa
- Dietista-nutrizionista
- Mikropigmentazioa ezpainetan
- Mikroblading bekainetan

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkarte.

L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/maillopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Ondare Kultur Taldea, Imanol Satrustegi, Lekunberriko Udala, Errigora, Andoni Urrestarazu, Araxes Pilota Elkarte, Gogor taldea. Labrit Multimedia.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - maillope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Mikel Urriza eta Oroitz Zabala.

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

04



KUXKUXEAN Azaroko zorion agurrak

09



MAITE DITUT MAITE Santa Barbarako ermita

10



ELKARRIZKETA



Imanol Satrustegi

14



BATZARRE

16



ERREPORTAJEA



Eskortak, gaztainen gotorleku

24



ERREPORTAJETXOA Lekunberriko festak / Tximista Fest

26



ELKARRIZKETA

Maite Iraizoz



28



PLAZATIK PLAZARA Gogor elkartasun biltegia

31



AGENDA





Haizea Garmendia Aristi

Azaroaren 9an, 3 urte.
Zorionak, ttikitina!!! Segi
holaxeko sorgiñe izaten ta
gu guztiok alaitzen! Muxu
haundi bat famili guzin
partez.

Alai eta Kai Pla Olive

Azaroaren 16an, 4 urte
Azaroaren 20an, 2 urte
Zorionak txikitxoak!!!!
Zuen egunez ilusioz gozatu eta jarrai
ezazue beti bezain alai.
Muxu handi bat etxekoen partez.
Maite zaituztegu!!



Luka Soria Iriarte

Azaroaren 23an, 4 urte.
Zorionak, maitia!
Handitzen-handitzen zoazela
ziztu bizian!
Egun zoragarri bat ospatuko
dugu familia eta lagun artean.
Segi beti bezain irrifaretsu eta
ideiak hain argi izaten.
Muxu errandoiak. Familia
guztiaren partez.



Laida Garmendia Huarte

Azaroaren 8an, 12 urte.
Zorionak etxekoen partetik!

Iria Soria Iriarte

Abenduaren 8an, 2 urte.
Zorionak etxeko printzesari!
Ez ezazu sekula zure alaitasun eta
bihurritasun puntu hori galdu.
Elkarrekin egun zoragarri bat pasako
dugu maitia. Muxu erraldoiak. Familia
guztiaren partez.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren
20a baino lehen.

IORTIA

CLÍNICA DENTAL · HORTZ ALERIKIA

Amets Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

**Construcciones
Gañarbe**

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri
✉ construccionesganarbe@gmail.com

☎ 616 457 540
☎ 636 827 846



HARITZ ZAHARRENETAKO BAT ERORI EGIN DA

Ibarreko haritzik zaharrenetarikoa zena erori egin da azken hilabete honetan, haizeteen ondorioz. 400 urte inguru zituen, eta 4 metrotik gorako diametroa. Gaixo zegoen, eta barrutik ustelduta. Lekunberriko galtzinlabetik abiatu eta Albiasu aldera dago, eta haritz horretatik 200 metro ingurura hori baino are handiagoa den beste haritz bat dago, bizirik dagoena. Ondare Kultur Taldeak 2 kilometro inguruko ibilbide bat prestatzen ari da galtzinlabea, haritzak, buztinezko harrobia eta teileria lotzeko.



INDARKERIA MATXISTA SALATZEKO

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna izanen da azaroaren 25a. Larraungo Berdintasun Mahaia manifestazio bat antolatu du egun horretarako: arratsaldeko 19:00etan izanen da, Lekunberriko udaletxetik hasi eta Larraungo udaletxera. Horrez gain, azaroan baliteke beste ekitaldiren bat antolatzea; beraz, adi egon deialdiei. 115 emakume eta 11 ume hil ditu indarkeria matxistak 2003tik Euskal Herrian.




KUDEA>GO ERABILTZEN IKASI NAHI DUZU?

Kudea>Go aplikazioa erabiltzen ikasteko eta informazio erabilgarria jasotzeko tailer bat antolatu dute Lekunberriko eta Larraungo udalek: azaroaren 8an izanen da, 19:00etan Plazaola Partzuergoan. Aplikazioaren sortzaileak berak emanen ditu xehetasunak. *Kudea>Go* iaz sortu zuten, herrietako eta eskualdeko joan-etorrien eskaintza guztiak eskura izateko, hala nola autobusen ordutegiak eta bizikleten alokairuak, baita herritarrak auto berean joan ahal izateko ere.

► Eider Martirena (Uitzi)



*Aldatzen ari ote den
urtaroen izaera
Arraro etorri zaigu
udazkena aurten gurera
Epelak egunak eta
ez du freskatzen gauera
Sutondoaren goxoa
soberan azaro aldera
Altxatu naiz ilusioz
leihotik begiratzera
Gaztainak hostoen pare
hasi dira goitik behera
Nahiz eta orbel artetik
onddo ta zizak atera
Saskia ez da beteko
etxen gelditzen bagera*



Doinua: Habanera Hurrengoa: Amets Soroa (Lekunberri)

EUSKALDUNOK EDUKAZIO TXARREKOAK

Orain dela gutxi, inguruko herri bateko taberna batean eserita geundela emaztea eta biok, ondoko mahaikoen elkarriketa entzun behar izan genuen, nahi gabe izan bazen ere. Lau lagun zeuden han eserita, bi Espainiako hegoaldekoak; eta beste biak bertakoak; haietako bat euskalduna, eta bestea, berriz, ez: "a mí me gustaba el vasco de antes, el que hablaban nuestros padres" esaten duten horietakoa. Horregatik berak ez du egiten ez hura, ez "bestea".

Kontua da, han ari zirela hizketan esanez zein edukazio txarrekoak garen euskaldunak, inguruan ulertzen ez duen norbait egonik, euskaraz aritzen garelako, erdaraz ongi jakinda ere: agian zutaz gaizki esaka ari dira, eta zuk jakin ez. Hori bai paranoia zenbait erdaldunek dutena!

Deus berririk ez zerupear; oso edukatuak diren horiek beti badute arrazoren bat euskaldunoi euskaraz aritzea galarazteko: Lehen esaten ziguten gurea zibilizatu gabeko herri baten hizkuntza zela, nekazari eta arrantzale ikasi gabeena. Gero, Espainiako batasunaren kontrakoa zela, "una nación, una lengua". Ondoren, zientziarako eta teknologiarako ez zuela balio, etab. Eta horiek denak funtsik gabeak gertatu direnean, eta gure

hizkuntza kulturarako, zientzia eta teknologiarako, eta mundu modernorako beste edozein hizkuntza bezain baliagarria dela erakutsi dugunean, zer eta edukazio txarrekoa omen da. Kaka zaharra!

Nafarroan, gaur egun, ia ume guztiek dute aukera euskara ikasteko, zerbait bederen. Baina zenbat dira beren umeak euskara aipatu ere egiten ez den eskolera eramaten dituztenak? Gero, ume horiek, tutik ere ulertzen ez dutela eta, edukazio handiz, nola ez, erdaraz egiteko exijituko digute.

Zorionez, gero eta gehiago dira euskaldunok gure hizkuntzan aritu nahi izatea ulertzen dutenak eta errespetatzen dutenak, eta hauetako asko, gainera, kanpotik etorriak. Hasieran aipatu dudun kuadrilla horretan ere, kanpotarrak, hegoaldekoak ziren hori ulertzen zutenak eta besteei kontra egiten zietenak. Zer gauza!

Bada ordua euskaldunok konplexuak alde batera uzteko, eta euskaraz aritzeko inori baimenik eskatu gabe. Uste dut, gehienok behinik behin, buru pixko bat badugula eta badakigula nola moldatu normaltasunez inguruan euskaraz ez dakien norbait dagoenean. Beti izanen da euskaraz hitz erdia entzun orduko minduta sentituko dena, baina hori bere problema da.

Juan Inazio Lizarraga Lazkano



AURRERATZEKO TARTERIK EZ AZPIROZKO MENDATEAN

Urriaren 19an, asteazkenarekin, Azpirozko mendatean pintaketa lanak egin zituzten. Egunero errepide horretan joan-etorriak egiten ditugunok asko harritu gaituz-

te egin dituzten aldaketek. Izan ere, aurretik pintatuta zeuden marra zuriak erreparatzeaz gain, lehen aurreratu zitekeen tartetan orain ezin da aurreratu, marra zuri jarraitua margotu baitute horietan: orain arte, Betelutik Lekunberrira bi tarte zeuden aurreratzeko, eta orain, berriz, bat ere ez. Lehen, lau zatitan zegoen aurreratzeko modua, gero bitan... hurrengoan, zer? 19-20 kilometro inguruan egin dute hori, "Cuesta madera"n, baita 17-18 kilometroko tartean ere, "Zia" etxe parean.

Egunero joan-etorrian ibili behar dugunontzat traba handia izateaz gain, kezkatzen gaituena da ibilgailuak gure herrira ailegatzean abiadura bizian hasten direla gainerakoak aurreratzeko, kontuan hartu gabe herri barruan 50 kilometro orduko abiaduran ibili daitekeela gehienez. Gainera, kamioiak izaten dira askotan ibilgailu horiek, eta are arriskutsuagoa egiten dute errepide bazterretik ibiltzea.

Horregatik guztiagatik, lehen ibilgailuak aurreratzeko aukera ematen zuten zatiak berriz hala izan daitezen eskatzen dugu, denon segurtasunagatik.

Maria Sotil (Betelu)

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

Errotalde 19,
Lekunberri

MARTILO TXIKI
PERKUSIO ESCOLA

www.martiloxiki.com
679 938 016

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

Lontxo Otamendi Artola

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

3 ELIKAGAITIK 1EK ZAKARRONTZIAN AMAITZEN DU

1 kg udare	2,74€	922 litro
1 kg patata	1,48€	287 litro
1 kg arroz	2,49€	2.497 litro
Dozena ½ arrautza	1,57€	1.176 litro
500 g legatz	11,03€	53 litro

**ALFERRIK GALTZEA,
GUZTIRA 6,44€ 1.645 litro***

*Elikagaien ekoizpenean alferrik
galtzen diren ur-litroak

**Erosketak ez planifikatzea
garesti ordaintzen dugu**



Nafarroan elikagaiak
alferrik galtzea
murrizteko agenda
2022-2027



emozioen munduan

●● Lorea Zulet (Psikologoa)

Berri txarrak

Gaurberriarrezinguratutabizigarahan eta hemen. Eskura ditugun iturri guztiekin, mundu osoan gertatzen den guztia irakur dezakegu, eta, normalean, komunikabideek gehiago elikatzen dute gure beldurra, negatibotasuna eta zinismoa, baikortasuna eta itxaropena baino.

Ez zaizue gertatzen gero eta gogo gutxiago ematen dizuela albisteak ikusteko edo irakurtzeko? Gauza gehiegik kezkatzen gaitu klima-alaketak, politikak, istripuek, gerrek. Horrek guztiak etengabe kezkatzen gaitu, baita antsietateak ere.

Munduak orain funtzionatzen duen bezala, non dena den azkar, dena eskura dago, entretenimendu-iturri oro informazio-iturri bat da, gure aisia albisteekin elikatu behar dela dirudi. Badirudi gertatzen den guztiaren berri izateko betebeharrak morala dugula, nahiz eta horrek kalte egin.

Eta zer gertatzen da berri horien berri ez duzunean? Batzuetan errudun sentitzen gara. Errudunak edo ezjakinak.

Baina denbora pasa ondoren, konfinamenduan, albisteei ordu gutxika begiratu, hildakoen eta ospitaleratuen kopurua eguneratuz, jarraitu beharreko arau eta betebeharren ondoren, konturatu nintzen hobe zela batzuetan ezjakinago baina apur bat zorionsuago bizitzea. Borroka askorekin bat egin behar dugu, eskubide askorekin borrokatu behar dugu, arrazoi asko errebindikatzen jarraitu behar dugu, baina batzuetan borroka egin

dezakegun bakarrak barrukoak dira, egunero geure buruarekin borrokatzen ditugunak, eta horrekin nahikoa izan daiteke.

Ongi neurtu behar da non kokatu gure energia, gudu pertsonalek lehentasuna daukate.



Inigo Garaioa
MARGOLARIA



696 658 288
LEKUNBERRI

German Lasarte
HARATEGIA



ARBEONDO
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

MALLOAK

ARTZAI GAZTAK

Granja Martxoena, GAITZA, Nafarroa
Iabi. 649 472 097 + Iocoma. 660 511 097
Malloak.com | info@malloak.com

IDIAZABAL



GALBURU
okindegia - panadería
Egur-labean egina!



Alde Zaharra 50
LEKUNBERRI
948 50 40 42

Hurrengoa:

Izar Amundarain Orbegozo



Ane Zabala Estanga (Arribe)


Zergatik aukeratu dut?

Lagunekin nahiz bakarrik oso maiz egiten dugun ibilbidea delako. Bidean zehar, lasaitasun asko eskaintzen du, Aralarko Malloen bista zoragarriekin batera. Gainera, inguruko azienden artetik igarotzeko aukera ematen du. Bestalde, puntara igo gabe, zaldiz asko egiten dudana ibilbidea da.

maite ditut
maite
gure 
bazterrak

Santa Barbarako ermita

Ibilbidea: zirkularra
Distantzia: 10km
Desnibela: 639m
Zailtasuna: erraza



Bidea:

- 1 Arribeko plazatik hasita, elizaren atzeko norabidea hartuko dugu, bertatik Elostalgaldarategia igaro ondoren ezkerreko hormigoizko pistan sartuz. Hormigoizko bide honetan aurreneko kurban, eskuinera ateratzen den bidexkari jarraituko diogu. Hemendik Gorritiko mugaraino ez dago galbiderik, gorantz doan bideari jarraitzea bakarrik baita.
- 2 Baso tarte batetik Gorritiko gainera iristean, ez dugu bertan dagoen ataka igar behar: ezkererantz igo behar dugu hesiari jarraituz. Metro gutxira dagoen paso batetik hesiaren bestaldera pasako gara.
- 3 Hemendik Santa Barbarako ermitara ez dago bide markaturik, baina oinezko bidea ezberdindu daiteke, hesiaren albotik baitoa.
- 4 Ermitatik jaisteko, hesia beste bi aldiz zeharkatuko dugu. Ondoren, hormigoizko errepideraino doan pistan behera jarraituko dugu. Errepide honetara iristean, ezkerreko hartuko dugu, Arribe - Atalluko partzelariara iritsiz.
- 5 Bertako ataka zeharkatzean, eskuinera ateratzen den traktore bideari jarraituko diogu. Hortik 700 bat metrora, bidegurutze batera iritsiko gara. Guk ezkerrekoa hartuko dugu, Atallura jaisteko.
- 6 Behin Atallura jaistean, estradatik nahiz errepidetik, bietatik Arribera iritsiko ginasteke.

“Nafarroa izan zen ezker erradikala gehien erroturik zuen Europako lurraldeetako bat”

Nafarroako Gobernuak argitara eman du Uitziko Imanol Satrustegiren ‘Beste mundu bat nahi genuen. Nafarroako ezker iraultzailea, 1970-1979’ lana. Historialaria, ikertzailea eta NUPeko irakaslea da, eta bere doktore tesian oinarritu da liburua ontzeko. Uste du lanak trantsizio garaia osatzen lagunduko duela.

Zein da zure tesiaren muina?

Ikertu dut Nafarroako ezker erradikala edo ezker iraultzailea gisa ezagutzen dena. Batez ere trantsizio garaiko eta frankismo bukaerako Nafarroako ezker iraultzailea izan dut aztergai, hau da, historiagrafian erabiltzen den bezala, alderdi sozialistatik eta komunistatik baino ezkererago, muturrerago kokatuta zeuden hainbat alderdi, mugimendu edota elkarte biltzen zituen sektore sozial zabala. Nire tesiaren ondorioz argienetako bat da Nafarroa izan zela ezker erradikalak errotze ahalmenik handiena izan zuen Europako lurraldeetako bat.

Zein alderdi politiko, mugimendu edo elkarte ziren ezker erradikalak?

Esan dezakegu bazela kultura-politiko bat gutxi gorabehera ideia edo helburu antzekoak zituzten hainbat talde edo alderdi elkartzen

zituena, baina oso zatiturik zegoen kultura-politiko bat zen. Ezkerrean ohikoa izaten den bezala, ñabardura txikiengatik-edo, zatiketa ideologikoak zeuden. Hori hala, korrante marxistak, leninistak, maoistak, troskistak eta abar zeuden ezker iraultzailean, eta, horren barruan, zatiketa horien arabera, hauek zeuden: Organización Revolucionaria de Trabajadores (ORT) —Iruñerrian indar handia zeukana—, Euskadiko Mugimendu Komunista (EMK) -Tuteran eta Lizarran errotze handikoa-, Liga Komunista Iraultzailea (LKI), Espainiako Lanaren Alderdia (PTE) edota Organización de Izquierda Comunista (OIC); hainbat eta hainbat sigla zeuden. Eta horien guztien artean osatuko lukete Nafarroako ezker iraultzailea edo erradikala zena. Nire tesian erabaki dut horietan zentratzea. Baziren talde libertario edo anarkistak ere, baina askoz ere gutxiago ziren, eta baita zentzu batean ezker abertzalea ere mugimendu horren partetzat har dezakegu, PCE eta PSOE baino ezkererago kokatuta zegoelako. Baina nik kanpoan uztea erabaki dut, batetik, ikerketa mugatu egin behar nuelako, eta, bestetik, trantsizioan gertatu ziren trasbase eta aldaketa batzuk azaltzeko interesgarria zelako bi sektore horiek bereiztea, elkarren ondoan zeuden arren desberdinak balira bezala ikertzea.

Zer eragin izan zuen korrante horrek 70eko hamarkada eta 80ko hamarkada bitartean?

Nafarroako ezker iraultzailea izan zen nazioarteko olatu iraultzaile baten aldaera lokala, nolabait esateko. Gerra Hotz betean, sozialismoa eta kapitalismoa borrokatzen ari ziren, eta bazirudien posible zela iraultza egitea munduan, baita Nafarroan ere. Orduan, iraultzaren aldeko



“Nafarroako ezker erradikala antifrankismoaren barruan aritu zen borrokan, batez ere langile mugimenduaren bidez”

mugimendu horrek forma hori hartu zuen Nafarroan: Nafarroako ezker erradikaleko alderdi horiek. Baina bazegoen berezitasun bat hemen, eta diktadura zen berezitasun hori. Frankismo betean ginen, eta, Frantzia, Italia edo beste herrialde batzuetan ez bezala, hemen, Nafarroako ezker erradikala antifrankismoaren barruan aritu zen borrokan, batez ere langile mugimenduaren bidez. 1960ko hamarkadan sortu zen ezker erradikala, hamarkada bukaera aldera hasi zen forma hartzen, batez ere mugimendu kristauen erradikalizaziotik eta ETAren zatiketa obreristetatik abiatuta. Oso garai gogorak ziren, klandestinitatean aritzen ziren, errepresio oso gogorra jasaten zuten, eta pixkanaka indarra hartu zuten, baita eragiteko ahalmen handia ere. 1970eko hamarkadaren erdialdean jo zuten goia; langile mugimenduan eta beste sektore batzuetan ere oihartzun handia lortu baitzuten, eta momentu batzuetan bazirudien frankismoa modu iraultzailean amaitzeko gai izanaren zirela. Frankismoa beldurtu egin zen garai horretan, eta, iraultza gertatzeko mehatxuaren aurrean, trantsizio prozesua abiatu zen.

Trantsizioa izan zen, beraz, olatu horri estatuak eman zion erantzuna?

Normalean trantsizioari buruz ematen den irudia edo azalpena izaten da Juan Carlos erregeak eta Suarez presidenteak abiatu zutela, beren borondate



Iruñeko Gazteluko plaza, maiatzaren 1 batean. Arg: Imanol Satrustegi.

demokratizatzaileari esker, baina, nire uste apalean, eta nire ikerketan defendatzen dudanaren arabera, ez zen horrela izan: borrokaren ondorio izan zen. Garai hartan, krisi ekonomikoa piztu zen nazioartean, petrolioaren krisia esaten zaiona, eta langile mugimendua ongi antolatuta zegoenez, langile klasea gai izan zen burgesiari eta elite handiei aurre egiteko, eta krisi horren ondorioz eta langile mugimenduaren oldarraldiaren ondorioz, eliteek beren burua mehatxaturik ikusi zuten. Gainera, frankismoa ez zen gai langile mugimendua edo kaleak kontrolatzeko; errepresioak gero eta eraginkortasun txikiagoa zuen, eta, momentu batetik aurrera, frankismoak eliteentzat erabilgarri izateari utzi zion. Horrek behartu zuen trantsizio prozesua; langileen mugimenduak egindako presioak kapitalismoarentzako legitimitate iturri berriak sor zitezten behartu zuen, eta legitimitate iturri berri horiek lortu ziren hauteskunde bidez eta ezker moderatuaren onarpenaren bidez. Hau da, PSOEk eta PCEk konstituzioari baiezkoa



“Bazirudien frankismoa modu iraultzailean amaitzeko gai izanen zirela, baina, iraultza mehatxuaren aurrean, trantsizio prozesua abiatu zen”

eman ziotenean, Espainiako kapitalismo berriak onarpena lortu zuen ezker moderatuaren aldetik.

Zer ezaugarri zituzten talde horietako militanteek?

Kontuan hartu behar da hamarkada batzuk lehentxeago, Nafarroan aldaketa ekonomiko eta sozial handiak izan zirela. *Desarrollismoa*-ren garaia izan zen, lantegi handiak sortu ziren, batez ere Iruñean, lan-eskua hiriguneetara erakarri zutenak.

Herri txikiagoetan ere industriak proletarizazioa eragin zuen: hala nola Leitzako Sarrio paper-fabrika, Sakanan ere baziren hainbat eta hainbat, Lesakan Laminaciones, Tafallan Luzuriaga, Tuteran ere lauzpabost zeuden... lantegi horiek



sortu ahala, jende asko herrietatik hirietara joan zen bizitzera, landa mundutik hirira, eta, urbanizazio prozesu horretan, langile klase berri bat sortu zen, oso gaztea zena eta Errepublika garaiko langileen mugimendua ezagutzen ez zuena, errepresioaren ondorioz, Errepublika garaiko ezker desagertu egin baitzen. Orduan, langile klase gazte

“Urbanizazio prozesuan, langile klase berri bat sortu zen, oso gaztea zena eta Errepublika garaiko langileen mugimendua ezagutzen ez zuena”

eta berri horrek egin zuen bat ezker erradikalarekin, eta oso mugimendu gaztea izan zen, hiritarra batez ere, nahiz eta herri txikietan ere bazuen presentzia. Eragin esparru nagusia langileen mugimendua zen, baina ez hori bakarrik, baita ikasle edo auzo mugimendua ere. Azken honetan, langile klasearen auzoetan zeuden beharrei erantzuteko: estolderia, argiteria, zerbitzu publikoak... falta zirelako. Ezker erradikala klase ertaineko edo burgesiaren seme-alabak direnen belaunaldiekin lotzeko ohitura izan da, baina ez da horrela inolaz ere: oso mugimendu proletarioa zen, ez burgesian, ezta ikasleetan oinarritutakoa.

Leitza hemengo ibarretatik hain gertu egonda, badakizu inguruko jendea ere ibili ote zen mugimendu horietan?

Gure eskualdean ere hainbat mugimendu izan ziren. Beste lurralde batzuetan bezala, protesta mugimenduak mugimendu kristauen erradikalizaziotik eta ETAren zatiketarik sortu ziren.

Leitzan, esaterako, Sarrió paper-lantegia ORT alderdiaren zelula bat aritu zen, eta horren barruan zegoen, besteak beste, Amparo Arangoa. Arangoa oso ezaguna egin zen 1976an Guardia Zibilak atxilotu eta torturatu egin zutelako. Sakanako hainbat tokitan ere sortu ziren ezker iraultzaileko taldeak barruko taldeak; Altsasun, Etxarriko Ufesan, Urdiaingo Magotteux -en eta baita Iruztungo Inasan ere. Arbizuk alkate trotskista izan zuen lehenengo hauteskundeon ondoren.

Esan bezala, langileen mugimenduaren bihotza industrialdeetan edo hirietan zegoen, baina landa inguruko arazoekin ere bat egin zuen, eta frankismo bukaerako gatazkarik garrantzitsuetako bat esnearen gerra izan zen, 1974. urtean: esnearen prezioaren beherakadaren



ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri

OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884



ondorioz, abeltzainak haserre bizian zeuden, eta grebak egiten hasi ziren. Nekazari mugimendu horietan sindikalismo kristauko eta ezker erradikaleko militanteak aritu ziren presioa egiten nekazarien eta abeltzainen alde, eta esne horren prezioa igo zedin eskatzeko. Besteak beste, zisterna kamioiak hustu zituzten. 1975ean, lau larraundar eta Basaburuko beste hiru lagun epaitu Ordena Publikoko Auzitegian gertakari horiek zirela eta.

Nola sentitzen zara zure lanari horren aitortza garrantzitsua egin diotela ikusita?


Lan gogorraren emaitza da. 2018an hasi nintzen tesia egiten, eta 2021eko urtarrilean bukatu nuen lan hori. Baina pozik ere aritu naiz bai, gai honen inguruan aritzeak ilusioa pizten zidalako, eta nik uste horrelako ikerketa bat beharrezkoa zela: esan bezala, Europako ezker erradikal errotuenetako bat zeukan Nafarroak, eta horren inguruko ikerketa bat beharrezkoa zen, batez ere, Nafarroako trantsizio prozesu konplexu eta gatazkatsua ulertzeko piezarik garrantzitsuenetako bat delako. Liburu honek, nik uste, trantsizioari buruz dugun ikuspegia

“Langileen mugimenduaren bihotza hirietan zegoen, baina landa inguruko arazoekin ere bat egin zuten”

osatzen laguntzen ahalko duela. Jendea liburua irakurtzen ari da, eta aurkezpenak egiten ari naiz. Oso kontent nago.

Beste ikerketaren bat egiteko asmoa duzu? Baduzu zerbait esku artean?

Gai beraren inguruan lanean jarraitzeko intentzioa daukat. Orain, liburua euskaraz atera da, eta nahiko nuke laster gai beraren inguruko beste liburu bat argitaratzea gazteleraz. Garai hartako militanteei elkarrizketak egiten ari gara, eta informazio eta testigantza gehiago jasotzen, eta ez hori bakarrik: trantsizio garaiko errepresioa lantzen ari gara unibertsitatean, eta espero dut horren inguruko lan gehiago azalduko direla datozen urteetan. antolatzeko! Bozgorailuari bateria bukatu arte egon ginen hemen!



**AURRERA
TABERNA**
ARALAR, 15
948 60 47 24

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza


Antsoenea
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antsoenea.com
Uztegi (Araltz)

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32



▶ LKUNBERRIKO UDALAK 2023KO AURREKONTUAK AURKEZTU DITU; EH BILDUK KONTRA BOZKATU DU

Lekunberriko Udalak 3.106.240 euroko aurrekontua onartu du 2023rako. Zerbitzu publikorako dirua mantendu egingo dute, erronka energetikoan jarriko dute arreta, eta proiektu txikiatarako eta konponketatarako ere erabiliko da dirua, hala nola aurrekontu parte hartzaileetarako, industrialdearen segurtasun kamerak jartzeko eta jubilotekarako. Bestalde, EH Bilduk kontrako botoa eman du. Bestek beste, salatu du udalak ez duela izan adostasun batera iristeko asmorik, eta arlo sozialari loturiko politika aktiboak egiteko baliabideak eta planteamenduak falta direla, esaterako etxebizitzari eta aisialdiari loturikoak.



▶ ODERIZKO BASKULA ZAHARRA BERRESKURATU DUTE

Oderizko perratokiaren ondoko atarian dagoen baskula zaharra eraberritu dute. Azienda pisatzeko erabili ohi zen orain dela 50 urte baino gehiago, eta ibarrean geratzen den bakarra da. Herdoilduta zegoen, eta ataria bera ere nahiko hondatuta. Hala, Oderizko herritarrek txukuntzeari ekin zioten, dena garbitzeari, eta Iturraskarrikoek bukatu dituzte lanak. Perratokia Ondare Kultur Taldeak berreskuratu zuen, eta Mugiron eta Etxarri-Larraunen ere bada halakorik oraindik, baita Astitzen ere.

GARAGARDO FESTA ARRAKASTATSUA ZIGARIN

Pirinioetako Xorta garagardo izan zen protagonista Beteluko Zigari elkartearen urriaren 29an. Dastaketa eder bat egin ondoren, ia ehun lagun izan ziren afaltzen elkarteak antolatutako garagardo festan. Elkarteko bazkideen eta herritarren elkarlanari esker, giro ezin hobean borobildu zuten eguna.





ESKATU EZAZU ERRIGORA SASKIA AZAROAREN 10A BAINO LEHEN!

Hasi da Errigoraren udazkeneko kanpaina berria. Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko produktuez osatutako hiru saski eskainiko dira azaroaren 10era arte, eta horien balioaren %25 zonako euskalgintzari bideratuko zaio. Euskal herritarrek ere bat egitea beharrezkoa dela gogorarazi du Errigorak, zonan AEK-k eta ikastolek euskaldunak sortzen jarrai dezaten, eta Sortzenek sare publikoan D eredia indartzeko lan egin dezan, baita Agerraldia egitasmoak Agerrean euskararentzako aro berri bat ireki dezan ere. Aukeratu zure saskia www.errigora.eus atarian eta egin zure eskaria Larraungo AEK euskaltegian (948 60 47 04 edo larraun@aek.eus).



OLENTZEROK BERE LAGUNTAILEETAKO BAT GALDU DU

Juan Manuel Zamargilea lekunberriarra zendu zen joan den urriaren 23an, 50 urte zituela. Urteak eman zituen Lekunberri Olentzeroren etorrera festan parte hartzen. Bera izan da urte luzez Gabon gaueko protagonista. Kanpoan bizi izan zen urteetan ere ez zuen hitzordua galtzen. Hori hala, aurten Lekunberriko udalaren 25. urteurrena dela eta, festetan ospatu zen ekitaldian aipamen berezia egin zioten. Sukaldari bikaina eta musikazalea zen. Besteak beste, Lekunberriko abesbatzako kidea ere izan zen. Gertukoenek ez ezik, Olentzerok ere aurtengo Eguberrietan faltan izanen duen laguntzaile fina!

BIRIBILGUNEKO ESKULTURAK, BERRITUTA

Lekunberriko iparraldeko sarreran dau den egurrezko hiru eskulturak berritu dituzte Iturraskarriko kideek, udalak hala eskatuta. Etxarri-Larraungo Luis Begiristain Madoz artistak egin zuen obra hori, 2009an, eta *Las figuras del diálogo* izena jarri zion. Urteen poderioz, ustelduz joan dira, eta orain tratamendu berezi bat egin diete beste urte askoan iraun dezaten. Bi aste inguru eman dituzte lan hauek egiten.



Eskortak, gaztainen gotorleku

Baserrian tokirik ez zutenean, eskortan biltzen zituzten gaztainak herritarrek, harrizko itxitura batean, animalietatik babesteko. Albiasun dagoen gaztaina eskorta aurkitu eta txukundu zuen Ondare Kultur Taldeak, eta auzolanean konpontzeko asmoa dute.

Udazkenaren etorrerarekin lotu ohi dira gaztainak. Orbel artean ikusten dira sasoi honetan, lurrean, morkots barruan batzuk eta morkotsetik kanpo beste batzuk, jada arbolatik erorita, onduta, biltzeko prest. Ordea, gero eta jende gutxiagok biltzen ditu, eta beharragatik baino, gutizia modura jaten dira gaur egun, hotz denean epel sentitzeko. Orain dela hamarkada batzuk, baina, Euskal Herrian oso ohikoa zen saskiak gaztainez bete eta baserrira eramatea, negu gogor eta luzeari aurre egiteko. Zerbait behar gosea asetzeko, eta gaztaina zuten altxorrik preziatuenetako bat horretarako. Oraindik ere usadio askotan ikus daiteke behar hori, hala nola antolatzen diren gaztaina jatetan

edota Eguberritako zenbait kantatan; “Hator, hator mutil etxera, gaztaina ximelak jatera” dioen horretan, esaterako.

Baserriko ganbaran edota ukuiluan gordetzen zituzten batzuek, morkotsetik atera gabe, hobe kontserbatzen baitziren horrela. Eta etxean nahikoa tokirik ez zutenek kanpoan bilatzen zuten txokoren bat: gaztaina eskortak erabiltzen zituzten gaztainak gordetzeko, harriz edota makilez —*mutxikallek* esaten zieten— egindako itxiturak, gaztaindegietan bertan, hau da, gaztainondoak zeuden tokietan. *Espronentzie* ere esaten zioten hesi horri. Forma borobila izan ohi zuten gehienek, eta horren

barruan biltzen zituzten morkotsak; ondoren, sasiakin, garoarekin edota orbelarekin estaltzen zituzten, ez usteltzeko. Itxitura horiek mendiko animaliak bertara ez sartzeko egiten zituzten, basurdeak eta txerriak besteak beste, eta, horrela, udaberrira arte gorde zitzaketen gaztainak.

Ibar honetan izanen ziren hainbat eskorta segur aski, baina Albiasukoa da orain arte aurkitu duten bakarra. Zehazki, Errazkinera bidean dago, Albiasuko gainetik 1.600 metrora, eta Ondare Kultur Taldekoek aurkitu zuten, Albiasuko herritarrei esker. Berezi, Rosa Sala Ezkurraren laguntzaz lortu zuten eskorta hura topatzea. Bordatxuri izeneko borda zuten Rosaren familiak gaztaindegi hartatik gertu, eta ongi ezagutzen zuten ingurua. Gainera, Rosak berak ikusi izan zuen nola gordetzen zituzten gaztainak eskorta horretan. Ez zen lan makala izan tokia aurkitzea: sasiak hartuta zegoen zona hori, eta eskorta ezkutatuta. Iturraskarrikoek dena garbitu, eta Ondarekoek egokitu zuten, bisitatzeko prest egon zedin.

‘Eskorta’ izena

Azienda gordetzeko itxiturari ere eskorta esaten zaio, eta, Juanjo Zubietak azaldu duenez, baliteke gaztaina eskorta batzuk aurretik abereak biltzeko erabili izana, baina ez da hala kasu guztietan, argi baitago gaztaindegietan egiten zituztela, espresuki gaztainak biltzeko, eta azienda biltzeko txikiegiak dira batzuk. *Eskorta* edota *eskortea* esaten diote Larraunen eta Araitzen; Iparraldean eta Imotz aldean, berriz, *kurtxilla* edo *kurtsilla* izenez dira ezagunak, eta Bizkaian *kirikiño* tokiak dira —*trikuari kirikiño* esaten diote, eta morkotsaren formagatik hartuko zuen ziur aski izen hori, gazteleraz bezala.



Albiasuko gaztaina eskorta. Arg: Ondare Kultur Taldea

“Morkotsak hagaz jo, esportan bildu, eta gurdia kargatuta bueltatzen ginen etxera”

91 urterekin, nostalgiazetapozik gogoratzen du Maria Josefa Buldainez osabarekin eta lehengusuekin pasatzen zuen denbora gaztainak jan bitartean. Aurretik, gurdia hartuta joaten ziren gaztainak biltzera, eta txerritegian gordetzen zituzten, morkotsetik atera gabe. Neguan ia egunero jaten zituzten gaztainak afaltzeko, danbolinean erreta.



Maria Josefa Buldain Arg: Labrit

Txikitatik ikusi dituzu gaztainak etxean? Zuk ere biltzen zenituen?

Barandan bizitu ginen hasieran, eta handik etortzen ginen ama, izeba eta ni Apeztiberrira, Apeztiberrin bizi baitziren osaba eta lehengusuak. Arratsaldean joaten ginen gaztainak biltzera; gurdia hartu, behiek eramaten zutela, eta Txaga izena zuen gaztaindegira joaten ginen, gaztainak zeuden barruti batera. Han, makila luze batekin bota, morkotsak joz, eta bildu egiten genituen. Osaba aritzen zen hagarekin morkotsak botatzen, eta guk esportan biltzen genituen, saskian. Tenaza moduko batzuk erabiltzen genituen morkotsak biltzeko, eskuak ez zitzatzeke. Osabak berak egiten zituen tenaza horiek, makilekin. Gurdia kargatzen, etxera ekartzen genuen, negu guztirako gaztainak edukitzeko.

Etxean non gordetzen zenituzten?

Txerritegian. Gurdia sartu, irauli, eta hortxe uzten genituen. Handik, egunegunegun gaztainak morkotsetik kendu, eta danbolinean erretzen genituen jateko. Morkotsen barruan gordetzen genituen, atera gabe, horrela kontserbatzen baitziren ongi. Gainerakoan, lehortu egiten dira, eta morkots barruan, berriz, ederki

egoten ziren. Horregatik ateratzen genituen morkotsetik behar zirenean bakarrik. Morkotsik gabe ez lirerate kontserbatuko.

Txerritegia ere berezia zen horretarako?

Leku on batean egon behar dute gaztainak. Ez da haizerik egon behar, eta txerritegia leku lehorra izaten zen. Lehortuz gero, gaztainak ez daukate zaporerik, azalak kentzeko oso txarrak jartzen dira, eta erretzeko ere bai.

“Morkotsen barruan gordetzen genituen gaztainak; gainerakoan, lehortu egiten dira”

Noiz jaten zenituzten?

Iluntzean, afaltzeko. Oso gustura egoten ginen osabarekin eta lehengusuekin. Bitartean, denborapasa egoten ginen, kontu batzuk esanez. Neguan kasik egunero jaten genituen gaztainak, bi hilabetean. Ni ez nintzen jateaz nazkatzen. Ez genuen gaztaina gehiegi jaten ere ez, pisutsua baitzen asko jatea. Apeztiberrira joaten ez baginen, osaba protestan hasten zen:

“Neskatoak ez al dira etorriko?“, esaten zuen eta ez baginen joaten, lehengusuek esaten ziguten osabak ez zituela gaztainak jartzen! Gu joaten ginenean bakarrik jartzen zituen afaltzeko. Danbolinean erretzen genituen, taula baten gainean jarri, eta mailu batekin zapaltzen genituen. Makina bat jaten genuen! Baina ze pozik!

Inguruan baziren gaztaindegi gehiago?

Bai, asko zeuden! Gaztainak biltzeko eta jateko ohitura handia zegoen hemen. Nik Intzatic ere ekartzen nituen, Uzuku izeneko terrenotik. Ura ere handik ekarri zuten Betelura, gure gaztaindegitik! Hango ura oso ona da, oso garbia. Egun batean, 30 kilo gaztaina bildu genituen Joakin nire senarrak eta biok, eta Tolosako feriara eraman genituen saltzera. Gaztainak jateko ideiarekin eraman genituen txerriak Uzukura, baina jasaren bat bota zuen, eta gaztaina guztiak lurtean zeuden gu ailegatu ginenean. Txerrientzako gehiegi izango zela-eta, ederrenak bildu egin genituen. Den-denak saldu genituen ferian! Etxe ondoan 10 kilo ur ere bildu izan ditut, eta Tolosara eraman saltzera. Baita intxaurrek ere.

Zer beste janari izaten zenuten etxean?

Etxean jana bazen. Potajea eta denetatik. Potajea behintzat beti izaten zen. Joakinek-eta bi soro handi egiten zituzten, eta babak, artoa, bainak... landatzen zituzten. Bainak ere salduta nago Soailletik dendara ekarrita, orain dela urte asko! Baratze txiki bat genuen etxe ondoan, eta soro bezala erabiltzen genuen. Baba pixka bat egiten genuen, arto asko ez genuen egiten, babagatik, bainak eta beste berdura batzuk-eta.

Bazenuten aziendarik?

Txerriak hazitzen hasi nintzen hemen, Labaineko Modesta hil zenean. Horregatik eramaten genituen Intzara. Pentsa zenbat urte! Pako haren gizona zortzi txerrikumerekin etorri zen etxera, eta ama hil egin zitzaizela esan zidan. Eta nik txerrikumeak hartu, eta hemen hazi nituen zortziak. Esne-hautsa ematen nien hazteko, pentsu pixka bat jaten hasi ziren arte. Saltzeko nituen, baina lehenago denak hazi nituen, eta ez zen bat bera ere hil! Pako txerrikumeak ikustera etorri zen behin, eta harritu egin zen bat bera ere hil ez zitzaigula ikusita!

Orain jaten al dituzu gaztainak ne-guak?

Lehen urtero gaztaina-jatea egiten genuen jubilatuek azaroan. Jose Mari Buldainek eramaten zituen, eta Pako Bergak ere erretzen zituen lehen. Buldainek gaztainak erosi eta bi dan-



Gaztainak zapaltzeko erabiltzen zuten mailua. Arg: Labrit

"Egun batean, senarrak eta biok 30 kilo gaztaina bildu eta Tolosako ferian saldu genituen"

bolin ekartzen zituen erreta, maleta batzean sartuta, kremailera itxita! Propio erosi zuen horretarako. Koronabirusaren kontu hau hasi zenetik ez dugu egin.

Bestela ere elkartzen zarete, ezta?

Hilero bazkari bat egiten dugu jubi-

latuok tabernan, baina gutxi biltzen gara, 13-15 bat, edo noizbehinka 22. 14:00etan joan, eta 17:00ak arte egoten gara. Denbora pixka bat pasatzen dugu behintzat! Gustura joaten gara. Horrelakoen falta handia sumatu dugu azken urteotan, pandemia garaian.



Lagunasesoría S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK
.....

24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es

EUSKARAREKIN, GORA ETA GORA BETI!

BETELU - MUGIRO



**GORA▲
GORA▲**

**FEST
2022**

50 ekitaldi baino gehiago,
Nafarroako txoko guztietan,
haur, gaztetxo eta familientzat,
**Euskararen Nazioarteko
Eguna** ospatzeko

Abenduaren 11ra arte

IKUSI EGITARAUA



HITZEZ EKITEKO GARAIA

Euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala da Euskaraldia, gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua. Azaroaren 18tik abenduaren 2ra burutuko da.

ARAU SOZIAL BERRIAK ezarri dituen:

- Lehen hitza euskaraz, besteak euskaraz ulertzen duen jakiteko. Defektuzko hizkuntza euskara (lehenetsitako hizkuntza).
- Solaskideak euskara ulertzen badu, euskaraz jarraitu dezakegu, berak erdaraz egin arren. Hau da, elkarriketa elebidunak sustatuko ditugu.
- Komunikazioa posible den bitartean, euskaraz egin daiteke, ingurua edozein dela ere.
- Era guztietako entitateek herritarren hizkuntza-hautua erraztu behar dute.
- Taldean denok, gutxienez, euskara ulertzeko gai izan eta dinamika praktikan jartzeko adostasun kolektiboa hartu beharra. Ez da beti erraza izaten. Bide horretan aurrera egiteko hurrengoak proposatzen ditugu 3. edizio honetan:
- Rol en sozializazioa bideratzeko ahalegina egitea: norbanakoak ahobizi eta belarriprest izango dira eta Ariguneetan modu kolektiboan eginen dute ariketa.

HIRUGARREN EDIZIO honetan, helburuak hauek dira:

- Euskaraldian parte hartzen duten norbanako eta entitateek euskarazko praktikak hedatzeko urrats berriak ematea. Hau da, ariketaren portaeretan sakontzea eta erabileran jauzi kualitatiboa ematea.
- Parte hartzea hedatzea: ahobizi, belarriprest eta arigune gehiago izatea. Batez ere ariguneak dira gako ho-

netan: entitateetan ariketa modu kolektiboan egiteaz gain, herritar multzo berrietara heltzeko eraginkorrak direlako.

Larraunen eta Araitzen Euskara Batzordeek hartu dute Euskaraldia eskualdean ikusgarri egiteko ardura, eta zeregin horretan ari dira.

Azaroaren 18a bitarte, izen-ematea sustatzeko eta gure herrietan Euskaraldia girotzeko jarduerak aurreikusi dituzte; hala nola herritarrek egitasmoari buruzko informazioa jasotzeko eta izena emateko orriekin mahaiak jarri dituzte Lekunberriko festatan, Errazkinen antolatutako Tximista Festan eta Araizko Zaporeak antolatutako azokan.

Euskaraldiko aurreko bi edizioetan parte hartu dutenek, online baieztatu dezakete beren parte hartzea honako esteka honetan: <https://izenematea.euskaraldia.eus/>

Azaroan jakinaraziko zaie izena eman duten guztiei ahobizi edo belarriprest txapak non eskuratu ditzaketen.

Azaroan zehar eta abenduaren hasieran, Euskaraldia- ren bukaerarekin eta Euskararen Egunarekin bat eginez, hainbat ekintza izanen ditugu bi ibarretan; besteak beste, antzerkiak, haur-gurasoekin tailerrak, Mikroipuin lehiaketa eta "Nahi dugu hitz eta solas" bertso saioa.

Bestalde, Euskaraldiari keinu bat egin nahi izanez gero, etxeetako leiho edo balkoietan jartzeko banderaxoa eskuratu daiteke. Banderatxoak 5 eurotan daude salgai Larraungo AEK Euskaltegian eta Euskara Zerbitzuan.

Amaitzeko esan Larraungo Euskaraldiak, une oro, ekimenari buruzko informazioa iragarriko duela Facebooken.

HITZEZ EKITEKO GARAIA heldu da!

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra



'Kiratsa' obrak irabazi du Etxepare saria, eta Pamiela argitaletxeak argitaratu du

Eider Perez Adeletzek eta Iban Illarramendik ondutako Kiratsa album ilustratuak jaso zuen Etxepare saria ekainean, lehiaketan parte hartu zuten 35 lanen artean. Pamiela argitaletxeak argitara eman du orain. *Kiratsa* lanak Ēimi kukuso edo arkakusoaren abenturak ditu ardatz, eta usain onei eta txarrei buruzko gogoeta plazaratzen digu: zer den usain, zer lurrin, zer kirats...

LEKUNBERRI

'Óxido azul' poema liburuak irabazi du Angel Urrutia poesia lehiaketa

Juan Lorenzo Colladok idatzitako *Óxido azul* obrak irabazi du Lekunberriko Udalak antolatutako XXI. Angel Urrutia poesia lehiaketa. 57 poemek osatzen dute lana, eta 3 eta 23 bertso artekoak dira. Gaur egungo gaiak landu nahi izan ditu idazleak bere obran, eta askotariko egoerei buruz hitz egin du: besteak beste, egoerarik gogorrean bizi direnen aldeko elkartasuna, biztanleriaren zahartzea, ekologia eta berotze globala, ohitura txarrak, etxeko indarkeria eta immigrazioa. Sari banaketan izan ziren saritua bera, Gorka Azpiroz Lekunberriko alkatea, zinegotziak, epaimahaia, Angel Urrutiaren alarguna eta senideak, baita herritar batzuk ere. Lekunberriko koruak girotu zuen ekitaldia, Juan Miguel Etxarriren zuzendaritzapean. Gainera, lehiaketaren antolatzaileek adierazi zuten, sari honi izena ematen dion egilearen bizitzari buruzko monografiko bat prestatzen ari dira *Príncipe de Viana* aldirian argitaratzeko. Consuelo Allué (NUP) koordinatzaileak espero du 2023ko ekainerako prest izatea materiala.



Militantzia moldatzen

Batzuetan, hamar minutuko hizketaldi batetan argitzen zait hilabetetan bueltaka dabilkidan pentsamendu bihurri bat. Gaintzako karreteran Iñakirekin, gaia, euskara gure inguruan, Euskal Herriko etorkizuna... Bada denbora orain arte borrokatutakoak ze norabide eraman dezakeen galdetzen diodala neure buruari, ze jarrera hartu, ze bide...

Alde batetik, nabaria da beste hizkuntza batzuekin elkarbizitza ezinbestekoa izango dela, produktu edo mundu ereduak saldu nahi dizkigutenek sekulako tresna indartsuak dituzte horretarako, sare sozialak, telebista... Nerabezaroa bezalako momentuetan nola ingelesari edo gaztelaniari garrantzia eman ederki asmatzen ari dira, mundu ikuskera, plazer latino... Garrantzitsua izango da euskal eremu babestuak izatea, eta mundura leiho horiekin elkar bizitzea.

Guk zergatik maite dugu euskara? Gurea delako, bai, baina matxismoa ere gurea da eta ez dugu maite... Mundua ulertzeko eta bizitzeko modu berezia delako maite dut nik, bere on eta txarrekin noski, baina besteen aldean fintasun dezentea duena. Komunitate zehatz batena, gertukoa, inguruarekin eta munduarekin lotura handia izan duena, errespetua eta hitza ardatz...

Etorkizuna ere garatu nahi duena bere baitan, inguruarekin, herritarrekin... bat. Eta militantzia berria izango da niretzat benetan espazio berezi horiek sortzen jarraitzea, non jendeak nahiago izango duen bizi Youtubeko bideoetan baino. Non ez dugun inor konbentzitu beharko euskaraz hitz egitera, nabarituko delako euskaldun izatea gauza ederra dela. Utopia pixka batek ea laguntzen digun bidea indartzen, aurrera ba!

GAINTZA

Jendez lepo egon da plaza VI. Araizko Zaporeak ferian

Araizko Zaporeak azoka egin zuten Arriben urriaren 30ean. Inguruko artisauek eta ekoizleek beren produktuak jarri zituzten Arribeko plazan, eta giro zoragarria izan zuten goizean. Gainera, ibarreko sei sagardogilek aurtengo uzta eraman zuten, eta sagardoa dastatzeko aukera izan zen lehen aldiz.



Nerea Zabala Otxotorena ogiak saltzen. Arg: Labrit



Antsonea gazta salgai. Arg: Labrit



Adin guztietako jendea plazan. Arg: Labrit



Talogileak. Arg: Labrit



Ikasbidairako dirua biltzen. Arg: Labrit



Ane Zabalaren behor eta zaldian ibili ziren haurrak. Arg: Labrit



Sagardogileak sagardoa botatzen. Arg: Labrit



Itsaso Aldai Landa artista. Arg: Labrit



Ilusioz berrekin dio Beteluko areto-futbol taldeak

Beteluko areto-futbol taldea lehiara bueltatu da. Uda garaian, 16 eta 18 urteko gazte kuadrilla batek elkartzea erabaki zuen, eta hala sortu dute Betelu F.T. Grupo Wisco taldea. Aurretik ere izan zen areto-futbol talde bat Betelun, eta garai hartan ibilitakoek lagundu diete gazteei martxa hartzen. Gazteen kategorian ari dira, hamabost egunean behin jokatzen dute Betelun, eta astean bitan entrenatzen dira, Andoni Urrestarazu entrenatzailearen gidaritzapean. Azaroaren 11n jokatuko dute hurrengo partida Betelun, 19:00etan. Herritarren babesa eta animoak behar dituzte; beraz, joan zaitez frontoira taldea animatzera!



Ttutturrekoak Izagara doaz azaroaren 27an

Ttutturre kirol elkarteko hogeiki kide inguru Aizkorrin izan ziren urrian, eta azarorako txangoa antolatu dute dagoeneko: Izaga mendira (1.361m) joanen dira, azaroaren 27an, Itzagaondora. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo <https://larraun.info/ttutturre/es/> helbidera.

Araitz-Beteluko pilotari gazteak kantxan dira

Iraileko ate irekien ondoren, aurtengo pilotarien taldea aurkeztu du Araxes Pilota Elkarteak. Poz-pozik eta umore ezin hobean eman diote hasiera aurtengo denboraldiari hamar pilotari gazteek. Bi kategoriatan lehiatuko dira: lau benjamin kategorian eta beste sei kimuetan. Garikoitz Huizi izanen dute entrenatzaile eta aholkulari denboraldian, esperientzia handikoa eta aurretik ere hala aritutakoa. Nahiz eta denboraldia martxan izan, oraindik ere apuntatzeko garaiz zaude!

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

ASPERTZEKO ASTIRIK EZ!

Lekunberriko Udalak egitarau zabala antolatu zuen herriko festetarako, eta jendez lepo izan ziren ekitaldiak, baita egunez nahiz gauzez emandako kontzertuak ere. 350 pertsona izan ziren esaterako herri bazkarian eta laurogei bikotek parte hartu zuten mus txapelketan.

Aurtengoan Inma Etxarririk izan zuen suziria botatzeko ohorea. Gainera aurtengoa berezia izan zen udalarentzat 25 urte bete baitira udal independente gisa bere ibilbidea hasi zenetik. Hori dela eta mende laurden honetan bidelagun izan diren herriko hainbat eragile elkartu ziren ekitaldi baten bueltan.

24

Errazkinen egin zuten Tximista Fest egunak ere inguruko herritar ugari bildu zituen, eta giro goxoan bukatu zuten eguna Gabezinen emaldiarekin. San Martin jaien txanda izanen da azaroan, eta Aldatzen eta Gaintzan prest daukate dena jaiei ongi etorria emateko!



VERONICA SATRUSTEGI

Guk sortu dugun, baina arnasten ez dugun airea

Galdetu al diozu inoiz zure buruari nolakoak diren petrolioak ateratzen duten tokiak? Nik ere, duela hilabete arte, ez nuen sekula imajinatu.

Irudikatu baso bat. Edozein. Baso horretan familiak eta komunitateak bizi dira, inori minik eman gabe. Kasualitatez petrolioak omen dago eta baso hori zeharkatu ahal izateko errepide bat egin dute. Komunitateek orduan, ihes egin behar izan dute errepidea ez dutelako gertu izan nahi.

Lurra zulatu dute. Metalezko hodiak eraiki dituzte. Lur-azpian? Ez, ez. Begi bistan daude. Kotxez bazoaz, hodi guzti horiek ikusiko dituzu. Eta ez da hodi bakarra. Hamai-ka dira. Errepidearen bi aldeetan.

Urrunean sugar bat ikus daiteke. Eta bi. Aizu, hiru! Sugar hori ez da sekula itzaltzen. Horrekin "petrolioak" erretzen ari dira, bestelako kimikoak desagerrarazteko eta "petrolioak" bere horretan, no-labait, lortzeko. Gero fintzera bidaliko dutena.

Sugar horrek gas bihurtzen ditu kimikoak, aitera doazenak zuzenean. Eta zeinek arnasten du aire hori? Gizakiok. Beno, gizakiek. Guk ez. Gu ez baikara bertan bizi. Ekuadorreko Amazoniari buruz ari naiz eta ikerketek diotenez, Ekuadorreko zonalde horretan jaso dira minbizia kasu gehien. Ez dut uste kasualitatea denik.

Luze jardun nezake irailen bertan ikasi eta ikusitakoaz, baina hurrengo zutabearen jarraituko dut. Hala ere, gogoratu: Amazonia, munduko birika den hori, ez da infinitua.



Arg: Lekunberriko Udala



Arg: Lekunberriko Udala



Arg: Lekunberriko Udala



Tximista Fest. Arg: Labrit



Tximista Fest. Arg: Labrit

“Niretzat, igeri egitea hegan egitea bezala da”

Gaztetatik egin du kirola Beteluko Maite Iraizozek. Sorosle gisa lan egin du urte askoan, eta beti gus-tatu izan zaio igeri egitea. 54 urterekin, igeri bai, baina dantza ere egiten du ur azpian: igeriketa artistikoko talde batean dabil Iruñean. Nabarmendu du igeri egiteak onura asko dituela osasunean, eta adina ez dela muga gauza berriak probatzeko.



Nolatan hasi zinen igeriketa artistikoa egiten?

Lagun baten bitartez hasi nintzen. Garbiñe Rekarte nire lankide izandakoa igerilaria izan da, bizitza osoa darama igeriketan, eta irakaslea ere bada. 2009. urtean, jakin zuen igeriketa artistikoa egiten hastekoak zirela Nafarroan, ordura arte ez baitzegoen deus. Hori ikusita, taldetxo bat sortzen saiatu zen. Niri ere galdetu zidan taldean sartzerik nuen, baina larunbatetan entrenatzen ziren, eta nik lana izaten nuen. Azkenean, Mariburruntzi Sinkro Taldea sortu zuen, zortzi emakume ingururekin, 35 eta 50 urte artekoak. Entrenatzen hasi eta bi urtera, ikuskizunak egiten hasi ziren beste igerileku batzuetan, demostratuz adin horrekin hori egiteko gai zirela. Abuztuan, zilarrezko domina irabazi zuten Erroman jokatu zen Europako txapelketan, Master kategorian, 45 eta 60 urte bitartekoan. Gainera, Iñaki Alforjak *El vuelo de las libélulas* izeneko dokumentala egin du haien inguruan, eta laster estreinatuko dute. Inguruko guztioi sartu digute igeriketa artistikoa egiten hasteko harra...

Noiz eman zenuen pausoa?

2018an hasi nintzen azkenean igeriketa artistikoa egiten. Iruñean lan egiten nuen tokian, gainera, talde bat osatu zuten, eta jendea behar zuten. Animatzeko esaten zidaten erabat, eta garai horretan larunbatetan jada ez nuenez lanik egiten, probatzeko aukera izan nuen. Zortzi emakume hasi ginen taldean, eta sei gara gaur egun. Zaharrenak 71 urte ditu, baina oso trebea da igerian. Hala ere, aurtent taldea indartzen saiatzen ari gara, gutxi gaude eta.

Zuek ere egiten dituzue erakustaldiak?

Ez, oraindik ez gara horretan hasi. Gure taldearen izena Dortokak da, oso mantso ari garelako ikasten. Oso kirol zaila da. Mariburruntzi taldean denak igerilariak dira, eta gure taldean ere batzuk badira, baina ez denak. Dena den, ikusten ari gara posible dela kirol mota hori egitea, gure ezaugarriak direnak direla ere.

Bi-hiru urte daramatzagu entrenatzen. Aurreneko urtean, jo eta fuego entrenatu nintzen, eta asko aurreratu

nuen. Urte bat geroago, ezin izan nuen horrenbeste hobetu, eta pandemia etorri zen gero... Baina aurten berriz topera hasteko prest nago, eta ikusiko dugu ikuskizunen bat egiten dugun.

Taldeko denek ez, baina zuk aspalditik egiten zenuen igeri, ezta?

Ni igerilaria naiz. Soroslea izan naiz 33 urtean, eta beti egin izan dut igeri. Menperatzen dudak kirol bat da. Erraztasuna daukat arnasa hartu gabe ariketak egiteko eta uretan mantentzeko, praktikatu dudalako eta gaur egun ere hobetzen saiatzen naizelako. Txikitan, balleta egin nuen, eta alde horretatik ere badaukat oi-narri bat.

“Aurrerapauso txikienarekin ere disfrutatu egiten dugu”

Zer da zailena? Zer teknika behar da?

Hasieran, posizioa hartzea da zailena. Buruz behera jarri behar da, eta hankak altxatu, mugitu... Alderantziz zaudenez ur azpian, ez dakizu hankak ongi jarrita daukazun. Besoekin egin behar da indarra zuzen mantentzeko, eta bi besoekin indar bera egiten ez baduzu, okertu egiten zara. Gorputza harri bat bezala jarri behar duzu, zuzen-zuzen indarra eginez. Zaila bada norberak bere burua zuzen jartzea eta ongi egitea, pentsa denek batera egitea eta ongi, gainera! Ia ezinezkoa da.

Musika gehitu duzue entrenamenduetan? Aditzen al duzue ur azpian?

Ur azpiko bozgorailuak ditugu ur azpian musika aditzeko. Horretaz guztiaz gain, beharrezkoa da sudurreko bat jartzea, pintza moduko bat, hori

gabe buruz behera jartzean ura sudurretik sartuko litzaiguke eta. Inportantea da halaber erritmoa mantentzea. Horretarako, aluminiozko makila bat sartzen da uretan, eta giltza ingeles batekin jotzen da, erritmoa markatuz.

Sei emakume zarete taldean. Harrereman ona duzue?

Bai, noski. Nire lagun Garbiñek esan zidan primeran pasako genuela, eta egia da; taldeko kirola denez, partaideen artean giro polita sortzen da, elkar animatzen dugu, eta, horregatik, gustura joaten zara entrenatzera. Buruz behera jartzen gara, eta ikustean gainerakoak ere hala daudela, hainbeste aurreratu dugula... poz handia ematen du. Oso dibertigarria da.

Ongi ere pasatzen duzue!

Sufritzen dugu, baina aurrerapauso txikienarekin ere disfrutatu egiten dugu. Pentsatuz gero nola aritzen ginen hasieran eta orain nola ibiltzen garen, ikusten dugu asko aurreratu dugula.

Zer ematen dizu igeri egiteak?

Hegan egingo banu bezala sentitzen naiz, txikitatik. Gainera, oso ona da osasunarentzat. Gorputzeko atal guztiak mugitzen dituzu, eta, lesio batengatik-edo, airean egin ezin dituzun mugimendu batzuk uretan egin ditzakezu.

“Motibazioa ez galtzea da inportanteena; inoiz ez da berandu kirola egiteko”

Zergatik uste duzue kostatzen zaio la jendeari igeriketa artistikoa egiten hastea?

Urte gutxi dira Nafarroan hasi dela. Gaztetxoek izena ematen dute, baina helduei gehiago kostatzen zaie. Orain, gainera, kirol oso akrobatikoa da, eta ez dut neure burua bueltak ematen ikusten.

Nola animatuko zenituzke emakumeak kirol artistikoa probatzera?

Ongi moldatu beharra dago igerian, ur azpian ibiltzen jakin behar da... Baina nik erronka gisara jarri diot neure buruari, eta pixkanaka lortzen dut aurrerapausoak ematea. Hemen inguruan taldetxoren bat sortuko balitz, primeran! Helduak kirola egitera animatuko nituzke, eta igeri egitera ere bai, noski, oso onuragarria baita gorputzarentzat. Motibazioa ez galtzea da inportanteena; inoiz ez da berandu kirola egiteko.



Maite Iraizoz entrenatzen.
Arg: Maite Iraizoz

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA

696 658 288
LEKUNBERRI

German Lasarte

ARBEONDO
HARATEGIA

Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea

Arribe
948 51 31 34

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZA

634 551 743
infoaralar@gmail.com

● ● Gogor elkartasun biltegia
Ciara Beaumont, Aitor Irastortza, Leire Olano eta Mikel Sagastibeltza

“Familiek ez dute muturreko egoera batean egon behar; lehenago jo dezakete guregana”

Pandemia garaiko konfinamenduak “eskubideak murriztu” zituela ohartuta, Gogor taldeak elikagai banku bat sortu zuen, arazo ekonomikoak zituzten familiei oinarritzko beharrianak asetzen laguntzeko. Antolakuntza oinarri, ordutik etenik gabe bildu eta banatu dituzte elikagaiak; hileko lehenengo eta hirugarren asteburuetan eginen dituzte bilketak.

Zer da Gogor elkartasun biltegia?

Mikel: Gogor ez da elikagai banku arrunt bat; orain, elikadura arloa lantzen ari gara, baina gure helburua da jendeak ez dezala izan elikagai sortak jasotzeko beharra. Oinarrian, Kontseilu Sozialistaren lan dinamika bat du taldeak: langileak antolatzea sistema kapitalistari aurre egiteko eta gure oinarritzko beharrak asetzeko. Gure ibarreen ere bada oinarritzko beharrak asetzeko zailtasunak dituen jendea, eta ez bakarrik elikadura aldetik, baizik eta zailtasun ekonomikoak dituen oro har, hala nola etxebizitzarekin, soldatarekin... Jende horrek agian badauka diru nahikoa janaria erosteko, baina zer sakrifikatzen du horretarako? Aldarrikatu nahi duguna da herritar guztiek eduki beharko luketela bizi duin bat eta kalitatezkoa, eta elikadurak doakoa izan beharko lukeela. Aldi berean, gure helburua ere bada kritika politiko bat egitea sistema kapitalistari, eta hori osotasunetik aldatzea.

Hemen ere, beraz, badira egoera horretan dauden pertsonak edota familiak?

Aitor: Iruditzen zaigu errealitate hori ez dela existitzen, baina hala da. Gogor taldearen garairik indartsuenean, 75 pertsonari banatzen genizkien sortak hemendik hasi eta Etxarri-Aranatzeraino, eta beste hainbeste zeuden itxaron-zerrendan. Ikasiz joan gara, eta funtzionatzeko modua aldatu dugu: hasieran, familia bakoitzari zortzi hilabetean ematen genion sorta “gehienez”, eta, ondoren, itxaron-zerrendako



Leire Olano, Aitor Irastortza, Mikel Sagastibeltza eta Ciara Beaumont. Arg: Labrit .

beste “familia batekin hasten ginen”. Baina ikusi dugu eraginkorragoa dela familia jakin batzuekin “egonkortasunez” lan egitea, guk haiei laguntzeaz gain, haiek gure proposamen politikoa uler dezaten eta inplikatu daitezen, gurekin kolaboratuz. Adibidez, txandetan parte hartzeko, edota Gogorrek dituen lanetan laguntzeko. Soluzioaren parte izateko eskatzen diegu. Larraunen, Lekunberrin, Araitzen eta Betelun hasiera berri baten gisara planteatu dugu oraingo hau, familia gehiagorekin harremanean jartzen hasiko garelako.

Zenbati laguntzen diezue gure ibarreen?

Aitor: Lauri lagundu izan diegu gehenez garai berean, eta iruditzen zaigu sei familiarekin lan egiteko gai izanen garela. Halere, badakigu familia gehiagok izanen dutela beharra, eta nabarmendu nahiko genuke ez

dela muturreko egoera batean egon behar gurekin harremanetan jartzeko, hau da, lehenago jo dezaketela gugana laguntza eske.

Ciara: Egitasmo polita izan da. Izan ere, sozialki baztertuta dagoen jendeak jo du gehienbat guregana, etorkinek batez ere. Herritar askok, agian, ez dituzte beren ibarrekotzat hartzen, eta horregatik ere izan da hain aberasgarria.

Nola lan egiten duzue? Nola lagundu dezakete herritarrek?

Leire: Funtzionamendua aldatu dugu, eta aurrerantzean bilketak hileko lehen eta hirugarren larunbategan eginen dira. Konstanteagoak izanen gara, jendeak ziur jakin dezan noiz izanen garen bilketa egiten. Lekunberrin eta Larraunen, Aliproxen eginen da, eta eguraldi txarra eginez



gero, oraingoz, Coviranen, baina asmoa da ahal den guztietan Aliproxen egitea, jende gehiago ibiltzen baita han. Araitzen eta Betelun, berriz, lehenengo larunbatean Betelun izanen da bilketa, eta hirugarrenean, Arriben.

Mikel: Elikagaiak emateaz gain, dirua ere eman daiteke, sortak osatzeko behar diren oinarrizko produktuak erosteko. 10 euro edo gehiago kanpaina jarri genuen martxan, eta hilean 10 euro edo gehiago ematen duen jendea ere badago. Horrela ziurtatzen dugu beti egongo dela sorta kopuru bera familia guztientzat. Biltegian ez dagoena erosi egiten dugu diru horrekin.

Boluntarioen sarea sendotzeko beharra ere baduzue?

Aitor: Kalkulatzen dugu boluntario bakoitzak bi hilabetean behin egin beharko lukeela txanda. Aurreikuspenen arabera hilabetean lau postu jarriko ditugunez, hamasei pertsonarekin atera dezakegu aurrera.

Leire: Araitzen eta Betelun sumatzen

da gehienbat boluntarioen beharra. Azken boladan bilketa geldirik egon da, eta orain boluntario gehiago beharko genituzke bilketak modu konstanteagoan egiteko. Orain sei-zazpi izanen gara hemen.

Mikel: Orain, gure lehentasuna hemen inguruko familiak izanen dira. Familiak gurekin kontaktuko balute, egonkortasuna emango lioke Gogorri, gehiago aktibatuko ginatete-eta boluntarioak lortzeko.

Bizimodua garestitzen ari dela ikusita, uste duzue etorkizunean jende gehiagok izanen dituela horrelako premiak?

Aitor: Inflazioaren ondorioz, gure erosteko ahalmena eta kontsumitzeko gaitasuna murriztuz doaz. Askotan, gurekin harremanetan jartzen diren familiak uste ohi dute beren erruagatik ailegatu direla egoera horretara, baina landu beharrekoa da sistemaren ondorio bat dela bizitzen ari direna, eta horri aurre egiteko modu bakarra kolektiboki antolatzea dela. Sozialismoa eraikitzea inoiz baino premiazkoagoa da orain.

“Familiei eskatzen diegu gure proposamen politikoa ulertzeko eta inplikatzeko, gurekin kolaboratuz”

“Sozialki baztertuta dagoen jendeak jo du gehienbat guregana, etorkinek batez ere”

Ciara: Klase kontzientzia piztea da helburua, konturatzea zu ere langile bat zarela eta pobretzen ari zarela. Tirita bat jarri ordez, zauria sendatzea.

Harremanetarako edo informazio gehiago nahi izanez gero:
gogorlangile@gmail.com
 edo 653 21 63 81



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
 Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
 14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
 ELKANO
 S.L.**

Industrialdea, 11
 31870 Lekunberri - Nafarroa
 Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

BIDALI ZURE MIKROIPUINA AZAROAREN 18A BAINO LEHEN!

Larraungo Euskara Batzordeak eta Araizko "Euskaraz bizi" taldeak Mikroipuinen lehiaketa antolatu dute Larraun eta Araithz bailaretan.

PARTE HARTZAILEAK

LHko 5. mailatik Batxilergoko 2. maila arteko ikasleak.
Bizitokia Larraunen edo Araithzen duen 18 urtetik gorako edozein.

LANAK

Lanak originalak, aurrez saritu gabeak, argitaratu gabeak eta euskaraz sortuak izanen dira. Gaia libreza izanen da. Luzera: ez dago aurrez ezarritako mugarik; mikroipuin izendapenaren barrenean sartzen den oro onartuko da.

SARIAK

- 5 kategoriatako sari bana egonen da, Larraunen eta Araithzen.
- Ikasleak: 40 euroko bonu bat, materialetan (margoak, koadernoak, liburuak, errotulagailuak, kalkulagailuak, CD-ak.....) gastatzeko Lanbroa liburu dendan.
- 18 urtetik gorakoak: 100 euroko bonu bat, materialetan gastatzeko Lanbroa liburu dendan

Aurkezteko modua:

1. Goitzen batez izenpetu beharko dira lanak. Aparteko gutun-azal batean egilearen datuak sartuko dira (izen-abizenak, helbidea, telefonoa, e-posta, ikastetxea, maila eta adina). Gutun-azalaren kanpoko aldean garbi adierazi beharko dira honako hauek: lanaren izenburua, egilearen goitizena eta maila. Euskara zerbitzuan aurkeztu beharko dira.
2. Goitzen batez izenpetu beharko dira lanak. Mezu elektronikoko bat bidali beharko da helbide honetara: larbeleareuskaraz@iparmank.eus, eta datu hauek jarri beharko dira
Mezuaren izenburua: Mikroipuinak 2022
Mezuaren edukia: izen- abizenak, goitizena, helbidea, telefonoa, maila eta adina zehaztu beharko, eta artxibo erantsian, mikroipaina, goitizenez sinatuta.



ARGIBIDEAK: EUSKARA ZERBITZUAN: **948 504 400** edo larbeleareuskaraz@iparmank.eus.

**M. Angeles
Urrizalki**

**iragarkiak,
berriak,
eskelak...**

**Diario Vasco eta Diario
de Navarrako
Korrespontsala**

**948513056
699179437**



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI



948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com

**BERTAKO
HARAGIA**

*Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako
platerak.
Etxera eramateko
zerbiltua ere
eskeintzen dizugu.*

Antigua kalea 7
31890 BETELU

▶ AGENDA

AZAROA

4 - *Ispiluari begira* haurrentzako tailerra, Gabari Gune Irekian, 17:00etan. Uemaren eskutik antolatua. Hurrek hizkuntza ohiturak aztertuko dituzte orma-irudietan, koloreen eta eskulenen bitartez. Izena eman behar da: 948 504 400 edo larbeleareuskaraz@iparmank.eus.

6- *Tailoivi* antzezlan, Gabari Gune Irekian, 18:00etan.

8- *Kudea>Go* aplikazioaren aurkezpena, Plazaolako Partzuergoan, 19:00etan.

12- EH Bilduk Bilbon *Abante* lelopean antolatu duen manifestazioa. Autobus bat irtengo da Lekunberritik, 14:30ean. Apuntatzeko: 610 54 48 28 (10 euro).

20- *Txapeldun* bihotza bakarriketa, Beteluko udaletxean, 18:00etan. Gazte-helduentzako bakarriketa da.

25- Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna. Manifestazioa Lekunberriko udaletxetik Larraungo udaletxera, 19:00etan.

25- *Ispiluari begira* haurrentzako tailerra, Araizko udaletxean, 17:00etan.

25- Printza: Lehendakaris muertos, Irikai, Gaizka akustiko eta Robe taldeen kontzertua, 20:30ean. Sarrerak Amairu tabernan salgai (12 euro).

26- Araxes Ikastetxean Ikas Komunitateko festa. Amets fasearen hasiera.

ABENDUA

2- *Nahi dugu hitz eta solas* bertso-saioa, Imanol Artola, Xabat Ilarregi eta Ane Zuazubiskar bertsolariekin, 19:00etan. Tokia zehazteko.

3- Mikroipuin Lehiaketaren sari banaketa ekitaldia, Larraunen, 12:00etan. Tokia zehazteko.

▶ MERKATU TXIKIA

▶ **Leitzan 85m2ko pisua salgai**, igogailuarekin, zaharberritzeko. Telefonoa: 660 86 95 01

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak



Etorri eta on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

AMAIRU bar

ETXKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK

948504352

ALIPROX
Lekunberri

janaridenda

hamabostaldiro eskaintza bereziak



CONSTRUCCIONES



ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK

ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri



aseguru gintza XXI

ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguraturua egotea da

▶ aseguruak@aseguruak.eus
▶ 943 65 22 20
▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

Atabal
okindegia

Era askotako ogiak eta gozoak

Etkez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

GALBURU
okindegia - panadería
Egur-labean egina!

Alde Zaharra 50
LEKUNBERRI
948 50 40 42

MALLOAK

ARTZAI GAZTAK

Ortza Muntakoa GAITZA, Nafarroa
Iabi, 649 472 057 + Iocune, 660 511 097
Malloak.com | info@malloak.com

IDIAZABAL

ALDAZKO FESTAK

Azaroak 10, osteguna

20:00etan, suziria eta festen hasiera
20:30ean, patata tortilla txapelketa
21:00etan, karaoke txapelketa

Azaroak 11, ostirala (San Martin Eguna)

11:11ean, meza
12:00etan, toka txapelketa
13:30ean, bermuta elkarte
14:00etan, herri bazkaria
16:00etan, bingoa
17:00etan, mus txapelketa Elkarte
19:30ean, batukada
00:00etan, DJ Oixani karpan

Azaroak 12, larunbata

11:30ean, erronda etxez-etxe, Iraunkorrek txarangarekin
16:30ean, puzgarriak frontoian
17:00etan, poker txapelketa elkarte
20:00etan, pintxo-potea elkarte
23:30ean, MUXUTRUK plaza taldea karpan
3:00etan, DJ Oixani karpan

Azaroak 13, igandea

9:30ean, Larraungo txistulariak herrian zehar
12:00etan, Araxes herri kirolak taldea frontoian
13:00etan, bermuta elkarte
14:30ean, bazkaria elkarte
17:00etan, pilota partiduak frontoian. Neskak palan eta mutilak esku pilotan.
20:00etan, karaoke txapelketaren finala
21:00etan, afari autogestionatua
22:30ean, festen bukaera

GAINZAKO FESTAK

Azaroak 11, ostirala

8:00etan, suziriak
12:00etan, meza nagusia
Ondoren, hamaiketako
19:00etan, poteo herrikoa
21:00etan, Martintxoren jaitsiera
Ondoren, herri afaria
00:30ean, DJ Jotatxo
7:00etan, gaupaseroen argazkiak

Azaroak 12, larunbata

18:00etan, harri jasotzaileak eta ingude erakustaldia:
Iñigo Eizagirre, Mikel Lopetegi "Urre", Xabat Olaizola eta
Josetxo Urrutia
20:00etan, poteo herrikoa
00:30ean, Gabezin musika taldea
Ondoren, musika goizaldera arte

Azaroak 13, igandea

8:00etan, suziriak
12:30ean, meza nagusia
Ondoren, hamaiketako eta bertsolariak: Bixente Gorostidi
eta Unai Muñoa
18:00etan, talo jatea